

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4063/20204 Ebazpena, abuztuaren 16koa, 2024 urteko oreinen marrualdian, Gorbeia Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) Arabako isurialdean zirkulazioa, erabilerak eta jarduerak mugatzeko aldia ezartzen duena

Abuztuaren 16ko 62/2024 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen Gorbeia Parke Naturaleko eta KBEko Arabako isurialdean zirkulazioa, erabilerak eta jarduerak mugatzea oreinen marrualdian. Agindu horretan, aldi horretarako ematen diren baimenen mugak, betebeharrak eta baldintzak ezarri ziren, honako hauetan ezarritakoaren arabera: naturagune hori kudeatzeko araudia, Parke Naturalaren Natura Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP), ES211009 Gorbeia KBEko jarraibideak eta neurriak, eta onura publikoko mendietako eta Parke Naturaleko ibilgailuen joan-etorriei buruzko berariazko araudian.

62/2024 Foru Agindu horren lehenengo eta hamargarren artikuluetan, ezartzen da marrualdiaren urteko aldia Natura Ingurunearen Zuzendaritzak onetsiko duela, ebazpen bidez, eta, beharrezkoa bada, I. eta II. eranskinetan jasotzen den eremuaren mugaketa aldatu ahal izango dela, oreinen inguruabar biologikoen edo populazio inguruabarren arabera.

Horregatik guztiagatik, zaintza langileek eta teknikariek emandako argibideak aintzat hartuta, Natura Ondarearen Zerbitzuak honako hau

PROPOSATZEN DU

Lehenengoa. 2024ko irailaren 9tik urriaren 13ra bitartera ezartzea 2024ko abuztuaren 16ko 62/2024 Foru Aginduak aipatzen duen murrizketa aldia, zeinetan Gorbeia Parke Naturaleko eta KBEko Arabako isurialdean zirkulazioa, erabilerak eta jarduerak mugatzen baitira, 2024an, oreinen marrualdian.

Bigarrena. 2024an ezarritako aldiaren zirkulazioa, erabilerak eta jarduerak mugatzeko eremua foru agindu horren I. eta II. eranskinetan zehaztutakoa izango da.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 16a

Natura Ingurunearen Zuzendaria
M^{re} JOSÉ MADEIRA GARCÍA